



[www.begiko.com](http://www.begiko.com)

© Testua: 2006, SUSTRAI COLINA

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-23-0

Lege-gordailua: M-16349-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

# H gabe

Sustrai Colina

Azaleko irudia: Jokin Mitxelena

begiko



*Belarritakoa oparitu zidanari,  
maitasunak mila aurpegi dituelako.*



## Printzesaren putza

9

Uso-kaken erorketa puntua kalkulatu, maite-minduen muxuak kronometratu, nesken kule-roen kolorea igarri, aitona muxu-gorrien txikito kopurua deduzitu... Gogorra da bizitza zeregin garrantzitsuagorik ez duzunean. Oso gogorra. Batez ere hamahiru urte badituzu, trenak jokatkoa baino itsusiagoa edo mapan agertzen ez den baserri batekoa bazara, eta eskolan zigortu duten zure lagun inuxentearen zain tximetaraino baldin bazaude.

—Hori da hori tonto-babua! —ekin zion Xabik, bi eskuak burura eramanez—. Zeini okurritzen zaio ondokoaren azterketa kopiatzen hasita izena ere kopiatzea!

—Normalean hiri, eta gaur Manuri —ebatzi zuen Joxemarik—. Gripea bezalakoa haiz, Mazapan!

—Gripea bezalakoa?!

—Bai... Kutsakorra.

—Kepak hitzez hitz kopiatzeko esango zion, eta Manuk sinetsi!

—Hik ere sinistu izan diok. Ez dik besterik merezi!

—Akaso, baina gu gaude bere zain.

10 Gainezka zegoen plaza. Ogi apurrak usoa bezala erakartzen zuen eguzkiak jendea. Zutitu orduko erortzen ziren umeak, lau belarri eta lau begiko atso marmartiak, portutik pasieran zetozen hiru hankako txikitero txapeldunak...

Lagunarteak elkartzen zituen Xabi eta Joxemari. Gainerakoan ez zuten zerikusirik. Pastel-pastela zen bata; alanbrea bezain fin eta zorrotza bestea.

—Nire aitona bederatzi urterekin irten zen lehen aldiz itsasora —aldatu zuen gaia Xabik.

—Ba, hi alfer galanta eginda hago. Hamahiru urte eta oraindik ez dakik igeri.

—Zaude isilik, Joxemai!

—Zer nahi duk esatea... Gure aitona lantokian jaio zuan.

—Lantokian? Baina umeak ez al dira ospitalean jaiotzen?

—Hi eta ni bai, baina gure aitona Pankraxio ez.



—Nola ba?!

—Gure aitona bere lantokian sortu zela... baserrian!

Dena ageri zen plazako azken eskailera-mailatik. Den-den-dena, Manuren arrastoa izan ezik.

—*Ni bizi naiz baserrian animalien erdian...* —tara-reatzen zuen Xabik, eliz dorreko ordulariari begira.

—Nahi duana, Xabiertxo, baina ni ez naitek zuek bezala harrapatuko. Txikia izango nauk, munduaren ipurtzulokoa, baina tontoa ez! —harrortu zen Joxemari—. Zuekin ibiltzea duk nire bekatua! Horixe!

—Baina, baina... Zer esaten duzu???

—Zuekin denbora galtzeko partez Keparekin eta besteekin ibiliko banintz, alde ederreko fama edukiko nukeela!

—Beno, beno... Keparekin... Fama... Zuri eguzkiak kalte egiten dizu!

Plaza husten ari zen. Txikiteroek Kale Nagusira jo zuten, atso marmartiek oinez ez dakiten bilobei txupatxusa erotera... Manuk gehiegi tardatzen bazuen usorik ere ez zen geratuko, eta jakina, usorik ezean kaken erorketa puntua kalkulatzetik ez. Beti geratuko ziren txakurrak, baina...

—Hara, begira zein datorren —ohartarazi zuen Xabik, Manu seinalatuz.

—Bazuan garaia!

Tentsio guztia bertan utziko balu legez eseri zen Manu bere buru karratua estaltzen zuen ile gominatua bezain geldia. Ez dago ipurdia bezalakorik hankei deskantsua emateko.

12 —Lasai, Manu —aupada eman ez, Xabik—, egun guztiak ez dira berdinak izaten.

—Batzuk txarrak eta besteak okerragoak izaten dituk...

—Baina Joxemai! Zaplaztekoak merezi dituzu! Ez al duzu ikusten Manu lur jota dagoela?

—Utzi, Xabi, utzi... —Manuk hondoa jo zuen.

—E?!

—Zuzen dabilela... Egun txarrak eta okerragoak...

—Baina, Manu, nola esan dezakezu hori?

—Kopiatzen harrapatu naute, zigortu, irakasleak txorizotarako ere balio ez dudala esan dit, eskola guztiaren barregarritza naiz, Kepak eta besteek burutik behera egiten digute kaka...

—Usoek bezala.

—Joxxxxemmmmai! —sutu zen Xabi.

—Ez digu inork kasurik egiten —jarraitu zuen Manuk, geroz eta hondoratuago—, jolas-garaiko futbol partidetan atezain izaten ere ez digute uzten...

—...

—Gainera, laster Xabiri hortzetako aparatua jarriko ziotek...

—Joxxxxxxxxxxxxxxxxxxemaaaaaaaaaiiiiiiiiiiii!!!

13

Hortzetako aparatu bat bezala sentitzen ziren. Traban, deseroso, zikin, zegokien tokia aurkitu ezinik. Hortzetako aparatuaren distira balute, sikiera... Baina ez. Dentistarenera ez joateagatik ahoa itxita ibiltzen ziren amaren aurrean.

—Hortzak erakusteko garaia da, mutilak! —eman zion buelta Xabik, eskailera-maila ukabileraz joz—. Ezin gara beti ahoa itxita geratu. Zerbait egin behar dugu.

—Zer, ordea? —etsi zuen Joxemarik.

—Gauza asko... —piztu zitzaion bonbilla Manuri—. Puenting, etxetik ospa, bihar goizean ikastolara amaren autoa gidatzen azaldu, herriko bankua atrakatu...

—Niri azken hori gustatzen zait —hunkiturik Xabi—. Elurretara joateko txanoak jantzi,

Joxemariren aitari eskopetak kendu, eta kito, milionario betiko!

—Ezinezkoa duk —Joxemarik, serio-serio—. Prest-prest gaudenerako gure etxeko kristalek baino distira gehiago izango ditek hire hortzek.

—Eta?!

—Mundu guztiak ezagutuko hauela, babua!

14

—Lasai, mutilak —baretu zuen enbata Manuk—, bankua atrakatzeak ez dauka zentzurik. Lapurrak nor diren ez da sekula jakiten, eta jakindakoan, kartzelan sartzen dituzte. Zertarako babilio digu famak guk kartzelan egon behar badugu?

—Kartzelan behintzat ez ditiagu Kepa eta enparauak ikusiko! —poztu zen Joxemari.

Plazako farolek argitu zuten iluntzea. Ez ziren argi egin zuten bakarrak.

—Zerk emango lioke min Kepari? —galdetu zuen Xabik, azkeneko pipak janez.

—Jozak arrautzetan, eta ikusiko duk! —pipakeria, Joxemarik.

—Ederki gaude Kepa arrautzetan jotzeko —arrazoitu zuen Manuk—. Zu ez zara metro eta hogeira iristen, Xabi gorila bat jota dantzatzen baino baldarragoa da...

—Eta hi, infantaren txakurra baino koldarra-  
goa!!!

—Alferrik ari zarete —eten zuen ika-mika Xa-  
bik—. Arrautzetakoa baino min handiagoa eman  
behar zaio horri!

—Ez duk bere printzesarekin ligatzea nahiko,  
ala? —bota zuen Joxemarik, eskaileretatik altxa-  
ta.

Hitzik gabe, begira-begira geratu zitzaizkion  
beste biak, «Hau noizbait munduko txapelduna  
izango da» pentsatuko balute bezala.

—Ez duzue usteko Idoiarekin ligatuko duda-  
nik, ala? —kezkatu zen Joxemari.

—Joe, ba ez dut imajinatu nahi horrek emango  
liokeen potrotakoa —egin zuen amets Xabik.

—Baina, baina...

—Bainak ortuan, Joxemai! Animaliak telebis-  
tan bakarrik ikusi dituen printzesita horrek zu  
bezalako idixko bat ikustean... —jo zion adarra  
Manuk.

—Zakurraren putza!!!

—Hori saiatu eta gero esango duzu, Joxemai,  
bitartean... —segi zuen tentatzen Xabik, zutitu  
eta etxerako bidean jarriz.

—Erotu zarete, ala? Nik ez diat printzesaren putza izan nahi! —oilartu zen idixkoa.

—Printzesaren putza?!?! —Xabik.

—Printzesaren putza!?!? —Manuk.

—Bai, printzesak botatakoa...

16 Joxemariren ateraldiarekin iritsi ziren eguneroko bidegurutzera. Ezkerraldera hartuko zuen Manuk, eskuinera Xabik, eta ordu laurdeneko bide malkartsuak eramango zuen Joxemari Etxezuri baserrira.

Printzesaren putzak, ordea, hori baino bide luzeagoa zeukan aurretik.